

## Irizarrek Irizar i6 berria aurkeztu du

*Madril, 2016ko urriaren 18a*

**Irizar i8 modeloa merkatuan aurkeztu eta urtebete baten buruan, Irizarrek i6 berria aurkeztu du, teknologia altuko autokarra, markaren ADNaren osatzen duen espiritu berritzailearekin garatua eta Irizar pb-a ordezttera datorrena.**

Irizarren katalogoko partaide berria aurkezteko ekitaldia hilaren 17an egin da, Ormaiztegi egoitza nagusian, eta urriaren 18an Madrilgo Trajearen Museoan, Espainiako ehunka bezeroren aurrean. Azken nobedade estrategikoak zein produktuaren nobedadeak aurkeztu eta gero, ekitaldian ibilgailu berriaren 2 bertsio aurkeztu ziren, 13 m eta 14 m luzeko i6-ak.

Irizarren markaren estrategia bermatzen duten zutabeetako bat da bezeroengandik hurbil egotea, bezeroaren beharrak aseko dituzten produktu eta zerbitzurik egokienekin hark dituen aurreikuspenak betetzeko. Negozioari balioa erantsiko dioten produktuak, teknologikoki zein irudi mailan berezi bihurtuko dutenak. Beste helburuetako bat da mugikortasun jasangarria segurtatzea, garraioari etorkizuneko soluzioak eskainiz.

Irizar i6 berriaren ezaugarri estetikoak i8 harrigarriaren antzeko ezaugarri estetikoak ditu, eta markaren modelo berrien teknologia barneratzen du, Irizar pb modelo enblematikoa nabarmen gaituzteraino. Produktu berriaren garapenaren oinarrian abangoardiako teknologia dago, nortasun propioa duen modelo baten kalitatea, sendotasuna eta fidagarritasuna bezalako kontzeptuen balioa agerian hartzeko.

### Espiritu berrituaren inspirazioa

Irizarrek, i6 berritua aurkeztuta, markaren ADNaren ageri den izaera berritzailean sakontzen du, soluzio teknologiko ugari eta askotarikoetan bermatuta eta estetika zorrotz zainduta.

Irizar i6-aren kontzeptu berritzaileak ariketa simple bezain zorrotz bati erantzuten dio. Simplea, denbora kontua baino ez zelako Irizar i6-ak i8 zirrargarriaren ezaugarriak bere egitea. Zorrotza, berrikuntza horri arima ere eman behar zitzaiolako; markaren modelo berrien arima.

Horregatik, iraultza estetiko horren oinarrian abangoardiako teknologia baten taupada hauteman daiteke, Irizar i6-aren berezko kontzeptuen balioa agerian jarriz: nortasun propioa duen modelo baten kalitatea, sendotasuna eta fidagarritasuna.



Marka blaitzen duen espirtu berritzailearen zehaztapenak dira diseinua, teknologia eta iraunkortasuna, eta autobus baten zati organikoa osatzen duten guztiei konfiantza eskaini nahi die: jabeak, gidariak eta bidaiariak. Pertsonak direlako gure inspirazioa motibatzen dutenak.

## Hizkuntza bisual propioa

Aurrealdearen diseinua LED faro berriek definitzen dute, eta horiekin batera dago abiadura kontrolatzeko sistema moldakorraren integrazio trapezoidal eskusiboa. Lerro markatuagoak eta erasokorrangoak, gainazal zurrun zein bigunetan zizailatuta. Hainbat elementu harmonikoki integratuta, hala nola aurreko laino argiak edo sabaiko posizio argiak. Emaizta berrizatu eta deigarria, Irizar i6-aren aurpegi ezaguna ñabartzen eta azpimarratzen duena.

Alboan, tolestura sotil batek optimizazioaren eta kalitate handiaren sentsazioa areagotzen du. Hobetu diren xehetasun eta edergarri modernoak erantsita indartzen den sentsazioa.

Irizar i6-ak bere atzeko aldean erakusten duen hobekuntza detaile angeluar fin eta modernoetatik sortzen da. i8-arekin kontzeptu estetikoak partekatzen ditu, baina horiei zigilu pertsonala eman nahi izan zaie, merkatuan erakarmen handiagoz zabaldu dadin. Efektu globala Irizar i6 berezi-berezia da, indartsuagoa eta dinamikoagoa.

## Teknologia. Azalaren azpiko taupada

Erronkek erantzunak behar dituzte. Irizar teknologiak baditu, badituenez.

Erronka batzuk zirkulazioaren eraginez eta baliabideak optimizatzeko beharretik datoz, eta Irizarrek erantzuten die: full LED argiak barruan zein kanpoan.

Arkitektura multiplexatua eta CAN komunikazio protokoloa, autokarraren elektronika osoa artikulatzeko, diagnosi zerbitzuak eta datuak hartzea ahalbidetzeko OBD konektorearekin eta sistemei nolabaiteko inteligentzia emateko.

Nabarmentzekoak dira, hala berean, gidatzen laguntzeko AEB-LDW sistemak, zeinek ukipen pantaila, kontrola eta HMI kotsola integratzen baitituzte. Bertatik kudeatzen dira entretenimendu eta konfort sistemak.

Beste erronka batzuek ongizatearekin edo segurtasunarekin dute zerikusia, edo, bestela esanda, bidaiaren lasaitasun, plazer eta disfrutatzearekin. Horri dagokionez, Irizar soluzioak bidaiaren gogobetetzeari sakontzera bideratzen dira: etengailu kapazitibo eskusiboak sabaiko argi difusorean, eta berritasun bat, alegia, airea xurgatzeko sistemak, bai autokarraren sabaian bai azpian, zeinek gidariaren zein bidaiarien klimatizazioaren errendimendua handitzen duten, hurrenez hurren.

## Gidatzea. Orain errazago



Gidaria da protagonista. Eseri eta ongi sentitzea da lehendabizikoa. Gidariaren eserlekua posturarik ergonomikoa azkar bilatuko dela bermatzeko diseinatu da. Jarlekuaren eta bolantearen posizioak gorpuzkera guztietara egokitzen dira. Etengailuen panela guztiz multiplexatuta dago ikono berriekin eta koloreekin, erraz identifikatu ahal izateko. Erlojuak eta informazio pantailak dagokien lekuan daude.

Aukeran, Irizarrena eksklusiboa den MMI sistema ere badago, sistema guztiak aginte birakari baten bitartez erabiltzeko (joystick), menuetan azkar sartzeko botoiak, eta koloretako 7"-ko ukimen pantaila bat gidariaren ezkerreko aldean.

Horrez gainera, ordea, Irizar i6-a gidatzen duen gidariaren erosotasun sentipena areagotu egiten da, atzeko ispiluen ikusmen optimoarekin eta aire girotuaren irteerak erregulatzeko aukerarekin. Azken finean, gidaria ondo-ondo zaintzeaz ari gara, haren lana errazteaz, ongizatea transmititzeaz, bidaiari guztien segurtasunaren mesedetan.

## Barne ongizatea

Irizar i6-aren barne kontzeptua egituratzen duen premisa da ibilbide bakoitzaren hasieran ongizate sententzia bilatzea eta sententzia horrek bidaiaren amaierara arte iraungo duela zaintzea.

Sabaiaren aurreko aldean bereizmen handiko monitore lau handi bat dago, 22"-koa, eta erloju bat eta WC argi seinalea.

Bidea LED argiekin argitzen da ointokietan zein sabaian, bidaiarien sartu-irtenak errazteko. "Soft touch" etengailu kapazitiboak eta irakurtzeko LED argiak ere baditu. Sabaiko estalgarriak kolore gris argikoak dira, barrualdeari argitasuna emateko.

Maletak eramateko goiko konpartimentuen ezaugarria duten edukiera handia da, eta LED argien ilara batez argituta daude.

Aire girotuko saretek diseinu trapezoidala dute, defentsa berriekin jokoa eginez, eta behealdean irekigune batzuk dituzte, bidaiarien konforta handitzeko.

Beste ekipamendu eta ezaugarri batzuk dira: 2 m baino gehiagoko barne altuera, eserlekuen arteko tarte handiagoa, gidariarentzako eta bidaiariarentzako ikusmen ezin hobea, distiren aurkako pertsiana elektrikoak, catering ekipamendurako integrazioa, klimaren errendimendu hobea, bisera motako monitore lauak eta neurri eta bereizmen handiagoko monitore zentrala...

Eserleku berriek Irizar i6-aren estetika berrituari eusten diote. Begietarako dotoretasuna alde batera utzi ezin den arren, lehentasuna beste kontzeptu batzuek izan dute, hala nola erosotasunak eta funtzionaltasunak. Lerro ergonomikoagoak, garapen modelo eta proba zorrotzetatik eratorriak. Buru euskarri zabalagoak. Jostura bikainak eta barren dotoreak, barnealdearen dekorazioarekin ezin hobeto bat eginda. Amaierako emaitza, konforta eta dotoretasuna transmititzen duen eserlekua.



## Segurua, fidagarria eta eroso

Markaren gainerako ibilgailu guztiek bezala, Irizar i6 berriak ere R.66.02 segurtasun araudia betetzen du, eta sistematik modernoak ditu segurtasun aktiboari dagokionez, egonkortasuna bermatzeko eta aurrekusi gabeko egoeretan arriskuak minimizatzeko.

Muturreko egoeretan, errepidean gainerakoen jokabidea aurrekusi ezin denean, lasagarria da jakitea Irizar i6 berriaren egitura iraultetarekiko eta parez pareko talkarekiko erresistentzia aintzat hartuta diseinatu dela, pisuen banaketa optimizatuta. Eta, gainera, gidariaren lekuaren kontzepzioa, zabaleragatik eta aginteetara iristeko erraztasunagatik, segurtasunaren funtsezko zatia da.

I6 berriak Irizar autokarren maximari jarraitzen dio. Autokar sendoa, arina, isila eta fidagarria da.

## Errentagarritasunik handiena

Operadoreak aurre egin beharreko kosturik handiena erregaiarena dela jakinik, Irizarrek ahaleginak eta bi egin ditu kontsumoak murrizteko.

Dagoeneko markaren bereizgarri bat da unitatearen azterketa aerodinamikoa. Hainbat ezaugarri Irizar i6-a segmentuko lider bihurtzen dute kontsumoari dagokionez: marruskadura gutxiagoko aurrealde estuagoa eta aire gutxiago sartzea, ordeko gurpila karenatua, pisu gutxiagoko erresistentzia handiko altzairuak eta aleaziozko hagunak.

Errentagarritasunean eragina duten beste faktore batzuk konponketa eta mantentze kostuak dira. Ildo horretan, zerbitzu tartek luza egin dira. 100.000 km-raino ibil daiteke olio aldatu gabe eta kate zinematikoko eta karrozeriako ordeko piezen prezioak doitu egin dira.

Horri gehitzen badiogu zerbitzu sareak hedatzeko prozesuan jarraitzen duela, Irizarrek homologatutako tailerrak autobusak dabilzan lekuetatik ahalik eta gertuen egoteko, Irizar i6-aren hondar balioa handia izango dela eta, beraz, inbertsioaren itzulera erakargarria izango dela bezeroentzat, edota lehentasunen artean CO2 isuriak gutxitzea dagoela, zalantzarik gabe baieztatu daiteke Irizar i6-aren alde egitea aukera onena dela.

## Pertsonalizazioa

Irizar i6 berriak pertsonalizazio mailarik onena lortu ahal izateko ildoari jarraitzen dio. 6 luzera, 3 WC mota, aukerako desplazamendua duten eserleku berriak, hainbat entretenimendu sistema eta barne estaldura berriak ezin konta ahala kolore eta akaberarekin. Laburbilduz, behar guztien neurria osa daitekeen modelo bat. Egokitzeko gaitasunik handiena. Bezeroak bere neurria konfiguratu dezake autokarra. Nahieran.



## Ezaugarri teknikoak

Irizar i6-a bi altueratan sortu da, 3,5 m-ko eta 3,7 m-ko bertsioak pasilloarekin, eta lau luzeratan:

- bi bertsio, 12,2 m eta 12,9 m luze diren 2 ardatzekin
- bi bertsio, 14 m eta 15 m luze diren 3 ardatzekin

Irizar i6 berria DAF Euro VI motorrarekin aurkezten da bertsio integralean, eta karrozeriako bertsioan merkatuko ohiko txasisekin, gaur egun txasisak eskaintzen dituzten marka desberdinetan.

Saldu ondoko zerbitzuak eta tailer sareak zerbitzuguneen kopurua handitzen jarraitzen dute, zerbitzu integralerako gero eta tailer gehiago gehituta. Hori guztia geldirik egoteko denbora minimizatzeko egin eta pentsatua, eta ibilgailuaren hondar balioa segurtatzeko eta erakargarria egiteko.